....................................................... [4]jaunak/andreak ADIERAZI DU inprimaki honetan adierazitako datuak zehatzak eta egiazkoak direla, eta aurkeztutako frogagiriak inbertsioetan egindako gastuei dagozkiela.

200.....(e)ko...................................ren..............
GERENTEA EDO JABEA edo antzeko kargua duena.

Don\Doña [8] ..............................................................................
DECLARA, la exactitud y veracidad de los datos reseñados en este impreso, así como que los justificantes presentados, anteriormente relacionados, corresponden a los gastos efectuados como consecuencia de las inversiones realizadas.
En...................................a……de……………………..de 200…
EL/LA GERENTE O PROPIETARIO/AO Cargo asimilado.

## OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**1218**

**17/2009 Foru Dekretua, otsailaren 17ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, aldatu egiten da maiatzaren 10eko 48/1994 Foru Dekretua, Arabako Lurralde Historikoaren Dirubilketa Arautegi Orokorra onartzen duena.**

Egungo ekonomia eta finantza krisia nola partikularrei hala erakundeei eragiten ari da, batez ere, eta diruzaintzako aldi baterako zailtasunei aurre egiteko, bere burua finantzazioa kanpoan eskatzera derrigortuta ikusten dutenei. Kreditu merkatuaren ohi kanpoko jokabideak ondorioak izan ditu bai kredituak ematean baita abalak eta bermeak lortzean ere.

Arabako Foru Aldundiak jaso beharreko zergak atzerago edo zatika ordaindu ahal izateko, batzuetan bermea eman behar izaten da, halaxe jasotzen baitu Dirubilketa Arautegiak, eta zorrak ordaindu arte atzeratuko da, ordaindu beharrekoa ez bada 3.000 euro baino gehiago.

Argi dago atzeraratze edo zatikatzeak errazago eman behar direla, beraz egokia da aldaketak egitea horiek emateko arauetan, Arabako Lurralde Historikoaren Dirubilketa Arautegi Orokorrean jasotakoetan.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak egindako txostena aztertu da.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

Artikulu bakarra. Aldatu egiten dira Arabako Lurralde Historikoko Dirubilketa Arautegi Orokorra onartzen duen maiatzaren 10eko 48/1994 Foru Dekretuaren artikulu hauek.

Aldatu egiten dira Arabako Lurralde Historikoko Dirubilketa Arautegi Orokorra onartzen duen maiatzaren 10eko 48/1994 Foru Dekretuaren manu hauek:

1. 38 artikuluaren 1. paragrafoa aldatzen da. Hona hemen aurrerantzean izango duen edukia:

"1. Zorra zatikatzea edo atzeratzea erabakitzen bada, Foru Ogasunak bere aldeko hipoteka edo lekualdatzerik gabeko bahia edo nahikoa berme eratzea eska dezake, betiere zerga zorra 10.000 euro baino gehiago izanda.

2. Honela aldatu da 50. artikulua:

"50. artikulua.- Eskaeren sailkapena

1. Atzeratzeko eta zatikatzeko eskaerak honela sailkatzen dira:

a) 10.000 euro edo hori baino gutxiagoko zorrak.
b) 10.000 euro baino gehiagoko zorrak.
c) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergatik eratorritako zerga zorrak; arautegi honetako Lehen Atalaren 4. Azpiatalak aipatzen duen kuota diferentziala.

2. Arautegi honetako Lehen Ataleko hurrengo azpiataletan arautuko dira eskaerak.

3. Lehen Ataleko hurrengo azpiatalek ezarritakoa gorabehera, Arabako Foru Aldundiak banketxe abala edo nahikoa berme eratzea

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

**1218**

**DECRETO FORAL 17/2009, del Consejo de Diputados de 17 de febrero, de modificación del Decreto Foral 48/1994, de 10 de mayo, por el que se aprueba el Reglamento General de Recaudación del Territorio Histórico de Álava.**

La presente situación de crisis económica y financiera está afectando tanto a particulares como a entidades, y de forma especial a quienes se ven obligados a solicitar financiación externa que permita salir al paso de dificultades transitorias de tesorería. Las consecuencias de este anómalo comportamiento del mercado crediticio alcanzan tanto a la concesión de créditos como a la obtención de avales y garantías.

Los aplazamientos o fraccionamientos sobre los tributos a ingresar en la Diputación Foral de Álava se encuentran en ocasiones con el requisito de la necesidad de aportar garantía para su concesión contenido en el Reglamento de Recaudación, dispensándolo para el aplazamiento de deudas cuando el importe total pendiente de las mismas no supere 3.000 euros.

Conscientes de la necesidad de facilitar la obtención de aplazamientos o fraccionamientos se considera oportuno introducir modificaciones en su regulación, contenida en el Reglamento General de Recaudación del Territorio Histórico de Álava.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria.

En su virtud, a propuesta del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, y previa deliberación del Consejo de Diputados en Sesión celebrada en el día de hoy,

DISPONGO:

Artículo Único. Se modifican los siguientes artículos del Decreto Foral 48/1994, de 10 de mayo, por el que se aprueba el Reglamento General de Recaudación del Territorio Histórico de Álava.

Se modifican los siguientes preceptos del Decreto Foral 48/1994, de 10 de mayo, por el que se aprueba el Reglamento General de Recaudación del Territorio Histórico de Álava:

1. Se modifica el apartado 1 del artículo 38, que queda redactado como sigue:

"1. Cuando se acuerde el fraccionamiento o aplazamiento en el pago de la deuda, la Hacienda Foral podrá exigir que se constituya a su favor hipoteca o prenda sin desplazamiento u otra garantía suficiente, siempre que la deuda tributaria exceda de 10.000 euros."

2. Se modifica el artículo 50, que queda redactado como sigue:

"Artículo 50. Clasificación de las peticiones.

1. Las peticiones de aplazamientos y fraccionamientos se clasifican en:

a) Deudas iguales o inferiores a 10.000 euros.
b) Deudas superiores a 10.000 euros.
c) Deudas tributarias derivadas del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, cuota diferencial, a que se refiere la Subsección 4ª de esta Sección Primera del presente Reglamento.

2. La regulación de estas peticiones se realiza en las Subsecciones siguientes de esta Sección Primera de este Reglamento.

3. No obstante lo establecido en las Subsecciones siguientes de esta Sección Primera, la Diputación Foral de Álava podrá exigir la

eska dezake, baldin eta zerga betebeharra duenaren zorrak, guztira, 20.000 euro baino gehiago badira.

Aurreko paragrafoak ezarritakoaren ondorioetarako, 20.000 euro baino gehiagoko kopuruengatik emango da abala edo beste bermeren bat".

3. Aldatu egiten da Lehenengo Liburuaren Lehenengo Tituluko VII. Kapituluaren Lehenengo Atalaren 2. Azpiatalaren titulua. Honela geratuko da idatzita:

"2. azpiatala. 10.000 euro edo gehiagoko zorrei buruzko eskaerak."

4. Honela aldatu da 52. artikulua:

"52. artikulua. Aplikazio eremua.

Zerga betebeharra dutenek zerga zorrak atzeratzeko edo zatikatzeko eska ditzakete, baldin eta zerga kontzeptu bakoitza 10.000 euro edo gutxiago bada, eta baldin eta diruzaintza egoerak ez badie uzten diru sarrerarik egiten dirubilketako borondatzeko aldian.

Kasu hauetan ez da banku abalik edo beste bermerik eskatuko, baina aurkeztu egin beharko dira agiri hauek:

a) Dituen banku kontu guztien batez besteko saldoak, edozein motatakoak edo modalitatekoak direla ere. Batez besteko saldo horiek aurrezki kontu bakoitzeko zehaztuko dira eta eskabidea egin aurreko hiruhilekoak izango dira.

Zergadunekiko Harremanetarako Zerbitzuak zergadunari eskatu ahal izango dio aurrezki kontuetan dituen saldoak erakusteko; saldo horiek zorra ordaintzeko mugaegunekoak izango dira edo egoki iritzitako beste egun batekoak.

b) Baldintzarik gabeko baimena, Arabako Foru Aldundiak, Ogasun Zuzendaritzaren zerbitzuen bidez, eskatutako atzeratzeak edo zatikatzeak irauten duen aldian mota guztietako banku kontu guztietako saldoak eta mugimenduak jakiteko.

5. Honela aldatu da 53. artikulua:

"53. artikulua. Eskaera.

1. Atzerapenenak edo zatikapenak eskatzeko, administrazioak ezarritako eredura egokitutako eskaerak aurkeztuko dira. Eskaera horietan honako datuak jasoko dira:

1. Eskatzailearen izena, abizenak, identifikazio fiskaleko zenbakia eta helbidea, pertsona fisikoa denean. Pertsona juridikoa denean honakoak adieraziko dira: sozietatearen izena, identifikazio fiskaleko zenbakia eta helbidea. Pertsona juridikoaren izenean jarduten denean, izen-abizenak, identifikazio fiskaleko zenbakia eta ahalorde askietsi bidez jarduten duen adierazpena, agiri horren erreferentzia emanda.
2. Atzeratzeko edo zatikatzeko eskatzen den zorra. Horretarako, tributua, zenbatekoa, aldia edo ezarpen aldiak eta mugaeguna adieraziko dira.
3. Idazki bidez, atzeratzeko edo zatikatzeko eskatu edo eskatuko diren eta mugaegun bera duten bestelako zerga zorrak.
4. Eskatzen den atzeratze edo zatikatzea.
5. Tokia, data eta eskatzailearen izenpea.

2. Administrazioak banku kontuaren zenbakia adierazteko eskatu ahal izango dio zergadunari, atzeratu edo zatikatu beharreko zorra ordaintzeko nahitaezko helbideratzea egite aldera. Era berean, baimena eskatuko dio atzerapenaren edo zatikapenaren ondorioz sortu diren zorrak aipatutako kontuan kargatzeko.

3. Zergadunak autolikidatu behar dituen zorren ordainketa atzeratzeko edo zatikatzeko eskaera ororekin batera dagokion autolikidazioa aurkeztu beharko da, behar bezala beteta eta likidatuta."

6. Aldatu egiten da Lehenengo Liburuaren Lehenengo Tituluaren VII. Kapituluaren Lehenengo Atalaren 3. Azpiatalaren titulua. Honela geratuko da idatzita:

"3. azpiatala. 10.000 eurotik gorako zorrei buruzko eskaerak."

constitución de aval bancario, u otra garantía suficiente, en los supuestos en que el conjunto de deudas pendientes de pago por el obligado tributario supere la cantidad de 20.000 euros.

A los efectos de lo establecido en el párrafo anterior, el aval u otra garantía se aportará por la cantidad que supere la cifra de 20.000 euros."

3. Se modifica el título de la Subsección 2ª de la Sección Primera del Capítulo VII del Título Primero del Libro Primero, que queda redactado como sigue:

"Subsección 2ª. Peticiones relativas a deudas iguales o inferiores a 10.000 euros."

4. Se modifica el artículo 52, que queda redactado como sigue:

"Artículo 52. Ámbito de aplicación.

Los obligados tributarios podrán solicitar el aplazamiento o fraccionamiento de pago de deudas tributarias, cuya cuantía sea igual o inferior a 10.000 euros por cada concepto tributario, siempre que su situación de tesorería les impida realizar su ingreso dentro del período voluntario de recaudación.

En estos supuestos no se exigirá la aportación de aval bancario u otra garantía pero sí se deberá aportar la siguiente documentación:

a) Saldos medios de todas sus cuentas bancarias, del tipo o modalidad que sean. Estos saldos medios, que se especificarán por cada cuenta de ahorro, irán referidos al trimestre anterior a la fecha de solicitud.

El Servicio de Relación con los Contribuyentes podrá solicitar al obligado tributario la aportación del saldo de las cuentas de ahorro a la fecha de vencimiento de pago de la deuda o a otra fecha que considere oportuno.

b) Autorización incondicional para que la Diputación Foral de Álava, a través de los Servicios de la Dirección de Hacienda, pueda conocer los saldos y el movimiento de todas sus cuentas bancarias, del tipo o modalidad que sean, durante el período de tiempo que dure el fraccionamiento o aplazamiento solicitado."

5. Se modifica el artículo 53, que queda redactado como sigue:

"Artículo 53. Solicitud.

1. Las peticiones de aplazamiento o fraccionamiento se presentarán mediante solicitud, ajustada al modelo establecido por la Administración, en el que se harán constar los siguientes datos:

1º. Nombre, apellidos, número de identificación fiscal y domicilio del solicitante, si se trata de una persona física. Si se trata de una persona jurídica se hará constar la razón social o denominación, número de identificación fiscal y domicilio, así como nombre y apellidos, número de identificación fiscal y manifestación de que actúa con poder bastante, referenciando el documento correspondiente, en nombre de la persona jurídica.

2º. Deuda cuyo aplazamiento o fraccionamiento se solicita, con indicación del tributo, importe, período o períodos impositivos y fecha de vencimiento.

3º. Otras deudas tributarias con el mismo vencimiento, para las que, mediante escrito independiente, se ha solicitado o solicitará aplazamiento o fraccionamiento.

4º. Aplazamiento o fraccionamiento que se solicita.

5º. Lugar, fecha y firma de la persona solicitante.

2. La Administración podrá exigir que el obligado tributario indique el número de una cuenta bancaria a efectos de llevar a cabo la obligatoria domiciliación del pago de la deuda a aplazar o fraccionar, así como autorización para que se carguen en la citada cuenta las deudas resultantes del aplazamiento o fraccionamiento.

3. A toda solicitud de aplazamiento o fraccionamiento de pago de deudas que deban ser autoliquidadas por el obligado tributario se acompañará, debidamente cumplimentada y liquidada, la correspondiente autoliquidación."

6. Se modifica el título de la Subsección 3ª de la Sección Primera del Capítulo VII del Título Primero del Libro Primero, que queda redactado como sigue:

"Subsección 3ª. Peticiones relativas a deudas superiores a 10.000 euros."

7. Honela aldatu da 57. artikulua:

“57. artikulua. Eskaera.

1. Atzerapen edo zatikapen eskaerak, banku abalarekin batera aurkeztuko direnak, hurrengo artikuluan adierazten den eran, administrazioak ezarritako eredura egokitutako idazki bidez aurkeztuko dira. Horretan, arautegi honetako 53. artikuluan adierazitako datuak jasoko dira.

2. Zergadunak autolikidatu behar dituen zorren ordainketa atzeratzeko edo zatikatzeko eskaera ororekin batera dagokion autolikidazioa aurkeztu beharko da, behar bezala beteta eta likidatuta.”

8. Honela aldatu da 62. artikulua:

“62. artikulua. Banku abala aurkezteko ezintasun egoerak.

Salbuespenez, atzeratze edo zatikatze eskabideekin batera banku abala aurkezten ez bada, arautegi honetako 57. artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaio. Kontuan hartu behar da eskatzaileak honako agiriak aurkeztu behar dituztela:

a) Dituen banku kontu guztien batez besteko saldoak, edozein motatakoak edo modalitatekoak direla ere. Batez besteko saldo horiek aurrezki kontu bakoitzeko zehaztuko dira eta eskabidea egin aurreko hiruhilekoak izango dira.
Zergadunekiko Harremanetarako Zerbitzuak zergadunari eskatu ahal izango dio aurrezki kontuetan dituen saldoak erakusteko; saldo horiek zorra ordaintzeko mugaegunekoak izango dira edo egoki iritzitako beste egun batekoak.

b) Baldintzarik gabeko baimena, Arabako Foru Aldundiak, Ogasun Zuzendaritzaren zerbitzuen bidez, eskatutako atzeratzeak edo zatikatzeak irauten duen aldian mota guztietako banku kontu guztietako saldoak eta mugimenduak jakiteko.

c) Titularraren ondasunen eta ekonomia eskubideen zerrenda.

d) Arabako Foru Aldundiak eskainitako bermeen aipamena eta deskripzioa.

e) Ezarritako epean ordainketa egiteko ezintasuna justifikatzen duen azalpen memoria, atzeratze edo zatikatzeko eskaeraren arrazoiak zehaztuta, baita eskatutako atzerapenak edo zatikapenak irauten duen denborari buruzko diruzaintzako aurreikuspenak ere.”

9. Honela aldatu da 64. artikulua:

“64. artikulua. Lehen adierazitako 62. artikuluan aipatutako bidezko eskaerak izapidetzea eta ebaztea.

1. Zergadunekiko Harremanetarako Zerbitzuak izapidetuko ditu zorra atzeratzeko edo zatikatzeko eskaerak, eta, arautegi honetan eskatutako baldintzak betetzen badituzte. honako organoek ebatziko dituzte:

| ORGANOA | ATZERAPENA | ZATIKAPENA | MUGA/EUROAK |
|---|---|---|---|
| Ogasun zuzendaria | 6 hilabete arte. | Hilean behingo 11 epe arte | 20.000 euroraino |
| Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua | 6 hilabete arte. | Hilean behingo 11 epe arte | 20.000 euro baino gehiago |

2. Ogasun. Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuari ahalmena ematen zaio artikulu honetako 1 paragrafoan adierazitako zenbatekoak eguneratzeko.”

AZKEN XEDAPENA

1. Foru Dekretu hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

2. Foru dekretu hau, baldin eta mesedegarriagoa gertatzen bada, indarrean sartzen denean ebazpena egin gabe duten atzeratze edo zatikatze ebazpenei aplikatuko zaie.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko otsailaren 17a.– Diputatu nagusia, XABIER AGIRRE LÓPEZ.– Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatua, JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ.– Ogasun zuzendaria, JOSU ZUBIAGA NIEVA.

7. Se modifica el artículo 57, que queda redactado como sigue:

“Artículo 57. Solicitud.

1. Estas peticiones de aplazamiento o fraccionamiento, a las que se acompañará aval bancario, en los términos que se indican en el artículo siguiente, se presentarán mediante escrito ajustado al modelo establecido por la Administración, en el que se harán constar los datos señalados en el artículo 53 del presente Reglamento.

2. A toda solicitud de aplazamiento o fraccionamiento de pago de deudas que deban ser autoliquidadas por el obligado tributario se acompañará debidamente cumplimentada y liquidada, la correspondiente autoliquidación.”

8. Se modifica el artículo 62, que queda redactado como sigue:

“Artículo 62. Supuestos de imposibilidad de presentación de aval bancario.

Excepcionalmente, a las solicitudes de aplazamiento o fraccionamiento a las que no se acompañe aval bancario, será de aplicación lo dispuesto en el artículo 57 del presente Reglamento, teniendo en cuenta que el solicitante deberá presentar la siguiente documentación:

a) Saldos medios de todas sus cuentas bancarias, del tipo o modalidad que sean. Estos saldos medios, que se especificarán por cada cuenta de ahorro, irán referidos al trimestre anterior a la fecha de solicitud.
El Servicio de Relación con los Contribuyentes podrá solicitar al obligado tributario la aportación del saldo de las cuentas de ahorro a la fecha de vencimiento de pago de la deuda, o a otra fecha que considere oportuno.

b) Autorización incondicional para que la Diputación Foral de Álava, a través de los Servicios de la Dirección de Hacienda, pueda conocer los saldos y el movimiento de todas sus cuentas bancarias, del tipo o modalidad que sean, durante el período de tiempo que dure el fraccionamiento o aplazamiento solicitado.

c) Relación de bienes y derechos de contenido económico de que sea titular.

d) Indicación y descripción, en su caso, de garantías ofrecidas a la Diputación Foral de Álava.

e) Memoria explicativa que justifique la imposibilidad de efectuar el pago en el plazo establecido, especificando las causas que motivan la solicitud de aplazamiento o fraccionamiento, así como las previsiones de tesorería referidas al tiempo para el que se solicita dicho aplazamiento o fraccionamiento.”

9. Se modifica el artículo 64, que queda redactado como sigue:

“Artículo 64. Tramitación y resolución de las peticiones procedentes a que se refiere el anterior artículo 62.

1. Las peticiones de aplazamiento o fraccionamiento serán tramitadas por el Servicio de Relación con los Contribuyentes y, si reúnen los requisitos exigidos en este Reglamento, serán resueltos por los siguientes órganos:

| ÓRGANO | APLAZAMIENTO | FRACCIONAMIENTO | LÍMITE/EUROS |
|---|---|---|---|
| Director de Hacienda | Hasta 6 meses | Hasta 11 plazos mensuales | Hasta 20.000 euros |
| Diputado Foral de Hacienda, Finanzas y Presupuestos | Hasta 6 meses | Hasta 11 plazos mensuales | Más de 20.000 euros |

2. Se faculta al Diputado Foral de Hacienda, Finanzas y Presupuestos para actualizar las cantidades señaladas en el apartado 1 de este artículo.”

DISPOSICIÓN FINAL

1. El presente Decreto Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava.

2. El presente Decreto Foral se aplicará, siempre que resulte más favorable, a las solicitudes de aplazamiento o fraccionamiento pendientes de resolución a la entrada en vigor del mismo.

Vitoria-Gasteiz, 17 de febrero de 2009.– Diputado General, XABIER AGIRRE LÓPEZ.– Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ.– Director de Hacienda, JOSU ZUBIAGA NIEVA.